

- Conserves de poissons  
Thon, Sardines, Maquereaux, anchois
- Salaisons
- et semi-conserves de poissons



## FACE A SES RESPONSABILITÉS, L'ACADÉMIE BASQUE VA-T-ELLE ÉCLATER ?

Nous publions ici la lettre que vient d'adresser à l'Académie un de ses membres correspondants M. Txillardegui, jeune auteur de talent.

Nous savons aussi que d'autres Académiciens en renom ont de leur côté adressé à l'illustre compagnie des programmes de travail ressemblant à de véritables ultimatium.

Euskaltzaindi'ko adiskide maiteak, AGUR :

Sei urte huntan Euskaltzaindi'ko lagun izanik, ne re barrenean nahasturik eta burruka nerabiltz-kien ideia asko Haritzelhar jaunak bildu eta mamitu ditu Baigorri'ko bere hitzaldian.

« Euskaltzaindi'ko adiskide maiteak, AGUR : — Euskaltzaindiak ez duela espanturik egiten euskaltzain berri baten sarrera antolatzean; eta hau egokia dela, zeren eta beste Akademiak eta guhaurena liferentak baitira. Nahi dut. »

Halere behar bezin liferentak ez direla deriztat. Eta hunetxek eraman nau, emeki-emeki, egun adieraziko ditudunak jakinarazi eta deliberatu behar huntarat.

Badira hizkuntza biziak eta hizkuntza hillaik. Hizkuntza bat 'mintza-bide bat da, adierazpide bat, alkar aditzeko tresna bat. Martinet hots handitako hizkuntzalariak ongi dio, frantsesaz ari delarik : « Frantsesa, beste edozer baino lehenago, frantsesez mintzo diran jendeak alkar aditzeko eta hartu-emanetan jartzeko balio duen tresna da. » Horra kakoa. Herri batek edo presunag batek hizkuntza bat jakitea ez da deus, mintzabidez bat ez ba du. Hizkuntza bat hildakoren mintzabide billakatu denean, hizkuntza hilla da. Eta alderantziz, bizi diran hiztunen mintzabide deño, hizkuntza bizia date.

Hizkuntza baten giharra, hortaz, mintzabide izan ala ez-izan hortan datza. Hizkuntzak, hitz batetan esateko, biziak dira ala hillaik dira baten ere. Etruskoa hil zen; euskera ustez baino hillago da; gaztelera eta frantsesa, ondo bizirik. Horra hor 'hiru' maillak; horra hor mintzairaren egiazko illara, hiru sailletan. Akademia batek beraz, hizkuntzari dagokion eginkizunik pixuena ahanzen du mintzabide den aldetik hartzen eta begiratzen ez ba du.

Etrusko-Akademiak, Euskaltzaindiak, eta Españolak, ezin dezateke nehandik ere jokabide antzekorik izan; hiru hizkuntza horiek, bizitazunari gozokiola, gutziz desberdinaik diralako.

Izan ditzateke, bai, jokabide antzekoak hizkuntzaren bizitasunetik eta landa jartzen ba dira. Baiña zentzuak berak erakasten duenez, sasi-Akademia bat baizik ez litzake izango hizkuntzaren biziak okupatuko ez litzakean Akademia. Behar-bada, Euskaltzaindiak, Araudiak bes-

terik oihukatu arren, hauetako bat dugu, eta euskeraren bizia bera etzaio sobera axolarik. Huntara ba litz, argi eta garbi jakinarazi nahi dut barrenean ez nukeala nik fitsik egitekorik izango.

Baiñan iduriz, itxuraz, eta letraz, Euskaltzaindiak euskera biziaren zaindari egon uste du, edo agertu nahi bider.

Izatez eta obratz, ordea, behar zukeanaren laurdenik ere ez du egiten, bide faltsuetan barrena abiatua delako; eta egia aurrez-aurre eta zer nahi gerta dadin ere ikusi nahi ez duelako. Eta nik ez dut joko hortan segi nahi. Ezin narraioke prestuki.

Euskaltzaindiak izango du azkeneko hitza. Baiña nik, euskeraren alde egoteko, ondorengo hauek egin arte ez dut Euskaltzaindiaren barrenean jarraitu nahi.

Euskaltzaindiak, euskeraren zaindari ari izateko, Biltzar Nagusi bat antolatu, behar du bereala. Huna hemen Biltzar Nagusi hortan erabaki behar diranak nere ustez :

1) Ortografia — Euskaltzaindik gorenak berak nor bere gisarat ari dira, Euskaltzaindiaren ortografiari jaramonik egin gabe. Urte antizen ondoren, oraindik ere « tch » eta « ch » erabiltzen dute batzuk; beste batzuk « h »-rik gabe ikiziriatzen dute, eta beste batzuk « v »-kin (letra hau Euskaltzaindik sekulan onhartu ez arren). Nahaste eta anarkia hauek ez dute ezer laguntzen euskeraren onetan, baiña bai kalte-tan. Biltzar Nagusi hortan, beraz, baitzabidako ortografia bat onhartu behar da, bozkatez edo nahi den bezala. Eta gero euskaltzain guztiak ortografia hori-baizik ez erabillik. Beren setai ekiten dietenak. Euskaltzaindi'tik egotziak izanen dira.

2) Euskera osotuaren beharra ongi nabaitu dugu Euskal Herriko lau partectan ibilli geranok. Bata sun hau bereala egiten, ez ba da, euskera hil egingo da. Euskeraren batasun hunen kontra, agirian edo gordeka, ari diranak oro, euskeraren etsaiak dira. Orain arte Euskaltzaindiak ez du egiazki ezer egin batasun-hunen alde : Baigorri'n bertan, batasun hau nahi ez duela agertzeko-edo. Haritzelhar jaunak baxenabarretarrez mintzatu da. Lafon jaunak xuberotarrez, eta Lojendio jaunak gipuzkoarrez. Batasunaren eraillle izan nahi denean ez da jarraimide ahalkegarri hori ematen.

Egin behar da, beraz, bereala, eta Biltzar Nagusi hortantxe onhartu, euskera osotuaren oinharri bat be-

deren : aditzaren konjugazioko paradigma osoa eta deklinazioak, guzxienez. Bi paradigma hauek Biltzarrean bozkatez-bidez edo nolana-nahi erabaki ondoren Euskaltzaindi'ko guztiak onhartu beharko litzuz-

teke, gainetako forma guztiak agirian eta literaturan alde bat utzirik. Paradigma horiek segitzen ez dituztenak. Euskaltzaindi'tik egotziak izanen dira.

Suite page 4

### MINTZAIRA LEHEN

**E**TXEKO zaldia, otoa, ontasunak... Badira zerbait... Bainan, horiek guztiak baino baliosago dira etxe... haurrak.

Haurrak dira alabainan « gizonetako » ontasun... Haurrak dira gure hezur eta haragitik... Gure odolatik... Gainerateko ontasunak dira « gizon-gabezko »... gureak ba, bainan ez « gu »-tik.

Gorputz gabeko ontasunentzat da gorputz-dun ontasunentzat... Ez da... Ez da jakintza da aberastasun bat... Baina eskuara da, batetik « gizonetako » aberastasun bat... Bestetik, eskualdunentzat, « gure » aberastasun berezi bat.

Eskuara galduz, ez dugu galtzen edozer ala zerbait, bainan galtzen dugu norbait eta « gu-kitik »... Eskuara baita gure arimaren haurra.

Eskuara da eskualdunaren sustenguririk segurena eta bizigailua... Gure dantza, kantu, pilota eta gainerateko « eskualdunetiek », emaiten diote eskualdunari bere azala... Eskuarak dio emaiten bere mamia.

Eskualdunaren alde izan daiteke, eskuara ez jakinik ere... Eskualdunaren kontra izan daiteke, eskuara jakinik ere. Bainan ez ditake eskualdun oso izan, eskuara jakin gabe.

Hortakotz, hemen deramakigun gudukan, eskuara daukagu, zaindu eta indartu behar dugun lehen aberastasuna.

Haatik eskuararen alde egin ditake lan, asko moldez... Gurekoi ditugu molde horiek guztiak — bainan — gure sail berezia da eskual-politika.

Gure pentsamendua da — fini direla eskuara eta eskualdun — guk, eskualdunek ez badugu ardiesten gure-gaintasun poxi bat, guhaurrek gidatzeko Eskuaherriko harat-hunatak...

Pariseko eta Madrilako jaun buruzagiek tuzteno eskuetan, Eskualherriko giderrak — beren erretxatun eta hobe dituzte ikusiko — bainan ez gureak.

Auzoa deno, gure etxean manatzale, auzo lan du eginen, erran nahi baita : guretzat deus onik ez.

Horra zertako dugun galdetzen : BEHINGOAN, hemengo Eskualherriak egin dezala departamendu bat berexa. — GEROXAGO, Europaz, erresuma bakar bat muntatzean — gure zazpi probintziak egin dezatela, Europa hartan, zati bat.

Horra gure politika !

Enbata.

### VIE DU MOUVEMENT

Le C. D. du Mouvement Enbata, en sa dernière réunion mensuelle, a examiné, entre autres sujets, la situation politique du canton de Hasparren au lendemain des élections pour le Conseil général.

L'unanimité de ses membres a approuvé la position prise par le Mouvement en cette occasion et a décidé, pour l'avenir, d'être présent lors de toutes consultations électora-

les en Pays Basque, soit en soutenant les candidats s'engageant à défendre le programme minimum d'Enbata, à savoir la création d'un département Pays Basque doté d'un statut officiel de la langue basque, soit, dans le cas où aucun candidat n'accepterait ce programme minimum, à présenter des candidatures purement Enbata.

